ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko ekainaren 28a / IX. urtea / 417. zkia

ERREPORTAJEA ELGOIBARTARRAK QUEBRANTAHUESOS ETA HIRU HANDIETAN

· GEHIGARRI BEREZIA DEKORAZIOA

KIROLA LAGUNAK PILOTA TXAPELKETAREN FINALETAKO EMAITZAK

# BARREN

ASTEKARIA




ARKAITZ MUJIKA, TXIRRINDULARIA

## "Ez naban espero Quebrantahuesos pruebia 3. amaitzia"


Elgoibar Uda 2002
Foruen Plazan 10:30etan
Aire Libreko Zinemaldia
Uztaila
Ostirala 5
THE SCORPION KING
98 min. / + f3 urte
Larunbata 6
SHREK
92 min. / denontzat
Ostirala 12
98 min. / + 7 urte
Larunbata 13
LOS TENENBAUMS
108 min. / + 13 urte
Ostirala 19
Harry Potter
155 min. / denontzat
Larunbata 20
FINAL FANTASY
104 min, / + 7 urte
Ostirala 26
101 min. / denont2at
Larunbata 27
130 min. / + 7 urte
Astelehena 29
SHOWTIME
96 mm. / + 7 urte
Asteartea 30
SCARY MOVIE 2
99 min. / + 13 urte
Abuztua
Ostirala 2
180 min clenontzat
Larunbata 3
120 min. denontzat
Ostirala 9
MONSTRUOS, S.A.
92 min. / denonlzat
Larunbata 10
EL ÚNICO
89 min. / denontzat
KULTURA SAILA



## Ekainak 28: ezkondu eta seme-alabak izateko eskubidea

Sexu bereko bikoteek, —beste hainbat arazoren artean- ez dute pentsioak jasotzeko eskubiderik, ez dute abantaila fiskalik, ezin dute haur baten ardura banatu —legez-, ez eta diru laguntza publikorik jaso. (Nafarroa salbuespen txiki bat da, baina estatu espainolean -EAE barne-, egoera hau da ).

Nik dakidala bikotea bikote da, eta sexu berekoa edo desberdinekoa izateak ez du bikote bat hobeagoa edo txarragoa egiten. Bizia konpartitu nahi duten pertsona bi, ongi konpondu eta elkar maite, eta errespetatzen duten pertsona bi dira: gizonak, emakumeak, anai-arrebak, lagunak ala lehengusuak izan.

Zertan datza gakoa orduan? Legeak, pertsonen arteko harremanak -familia- generoaren arabera arautzen dituela. Baina bikoteak eta familiak maitasuna, ulerkuntza, berdintasuna eta errespetua bezalako kontzeptuen arabera baloratu behar dira, eta ez generoaren arabera.

Ezkondu eta urte gutxitara elkar maitatzeari utzi zion zenbat bikoteren oinordeko da gure belaunaldia? Gure ama eta amonetatik askok bakardadean hazi, hezi, eta gobernatu behar izan zituzten etxea eta seme alabak...eta horri familia deitu izan zaio. FamiLia? Genero ikuspegitik izango da...zeren eta bestetik...

Benetako harreman osasuntsuak elkar maite eta errespetatzen duten pertsonen artekoak dira, eta horretan sexu berekoak edo ezberdinekoak izateak ez du zerikusirik. Gauza gehienetan bezala, norbanakoen kontua da, emakume zein gizon izan. Horregatik behar ditugu guztiok eskubide berdinak, pertsonak pertsona bezala epaitu behar direlako, eta ez sexuaren arabera.

**Lorea Perez de Albeniz**



## Pentsamenduaren atsedena

Gaur (ekainak 19), greba deialdiari erantzunez, egun osoan "lanik" (lan profesionalari buruz ari naiz, noski) ez egiteko asmoz jaiki naiz ohetik. Zeregin ludiko bat bilatu nahian Hasier Etxeberriak kaleratu berri duen "Bost idazle Etxeberriarekin Berbetan" liburua hartu dut esku artean. Aukeraketa ezegokia greba egun baterako? Atxaga, Izagirre, Saizarbitoria, Sarrionandia eta Etxeberria beraren hitzek ez diote nire garunari errebindikatzen zuen atsedenik eskaini. Idazle hauen gizartearen, politikaren eta kulturaren inguruko ikuspegietan murgildu naiz goiz osoan zehar, betebehar ez profesionalek (sukaldari amateur-a naizenez, greba egun batean bazkaria prestatzea zilegi zait) liburua bere apalean uztera behartu nauten arte. Hala ere, irakurritakoa "irensten" jarraitu dut sukaldean. Sarrionandiaren hitzek ederki asko deskribatzen dute gaur egungo egoera: "Gertatzen dena da gizartea sistema mediatikoa eta dena, jendeak ahalik eta gutxien pentsa dezan antolatuta dagoela. (...) Politika, publizitatea, telebista, dena pentsamenduaren deskantsurako pentsatuta dago". Bihar "Operacirin Triunfo" dosia bikoiztu beharko dut gaurko irakurraldiak sortu didan neke intelektuala gainditu ahal izateko.

**Hasier Etxeberriak kaleratu berri duen liburua hartu dut esku artean. Aukeraketa ezegokia greba egun haterakol**

**Alberto Ansuategi**

KeXak .......... 5
motz MOtZ .......... 8
gehigarri berezia .......... 11
kiRolAk .......... 24
aGenda .......... 28

# Urruzunoren begi ezkutua

## Mutil batek kontatua



Esan zenidan kafe hartara joatea gustatzen zitzaizula, batez ere, kafe hartan aurkitzen zenuelako egunaren jarioari arnasa hartzen utziko ziona. Eta beti eskatzen omen zenuen "ebaki" bera. Baina zuk kamareroak jartzen zizun gozokia zenuen gustuko, hori esan zenidan.

Arnasa hartzeari utzi behar zeniola gogoratu eta kafe hura agurtu behar zenuen unerako uzten zenuela azukre gordailu hura. Eta lanerako bidaia hasten zenuen, gozokia oraindik eskutan, urruntze hutsak beldurtuko bazintu lez,,,

...ez dut gozoki haren antzik ezagutzen... baina nire egunei arnas emango dien kaferen baten peskizan... kontatu hartaz oroitzen naiz.

Ainhoa Lendinez

## MENDARO, NORA ZOAZ?

Hainbeste eta hainbeste urtetan Mendaroko gazteek etxebizitza egokirik ezean kanpoko bidea hartu behar izan dute. Egia da beraz, Mendarok etxebizitza beharra zuela, bere herri izaerari duintasunez eutsiko bazion.

Azken urteotan aldiz, kontrako muturrera eraman dugu arazoa.

Etxebizitzak egiten dituzte, baina ba al dago planifikaziorik'? Ba al dakigu herria zertara bideratu nahi degun? Herritarrek ba al dute parte hartzerik etorkizun Iaburrean hain garrantzitsuak izango diren erabakietan? (Arau Subsidiarioen berriztapenean, esaterako.)

Hainbat gauza oker egiten ari direla iruditzen zaigu eta horren aurrean sasoiz neurriak hartzen ez baditugu, ez dakigu Mendarok zer nolako itxura eta izaera izango duen laister.

Nekazal lurrak desagertuz doaz, baserriak laister muestrarako ere ez ditugu izango, Mendaroko eraikuntza esanguratsu asko bota dituzte, edo bota nahi dituzte eta poliki-poliki Mendaro pertsonalitate eta historiarik batere gabeko herria ari da bijakatzen: Zubi Zaharra bota zuten, Agustinen Komentua botatzen ari dira, Kilimon errekaren kanalizazioa, Azpilgoetako Abadetxeak (gaur Gaztetxea) ere ez du luzerako bizitzarik... eta zer daukagu trukean? Izugarrizko industriaguneak, behin nekazal-lurrak ziren lekuetan (industria herrira ekartzea positiboa izan litekeenik ez dugu ukatzen, baina zein da neurria? Ez al dago irizpiderik, kriteriorik?), eta etxebizitzak alde guztietatik, aurrez zegoenari kasurik ere egin gabe (ez baina, adibidez, etxebizitza sozialik inondik inora).

Herritarren kopurua handitzeak, arazo sozialei edo herriko bizitzari kasu handirik egiten ez zaionean, herriari bizitza emateko baino guztiz akabatzeko gehiago balio du. Mendarora bizitzera datozen askok Elgoibartarrak, Eibartarrak edo ez jakin nongoak izaten jarraitzen dute, ez dago integraziorik, ez dago bizitza sozialik...gero eta ezezagun gehiago: horixe da dagoena.

Eta norbaitek pentsatu al du guzti honek zertara daraman Mendaro?

Eztabaidari bide eman eta Mendaroren etorkizuna, Mendaroko herritarrok zuzenean erabaki dezagun nahi dugu. Beharrezkoa da eztabaida herritarron artean zabaltzea.

J.E. (N.A.N. 15386271)

izembizenok,NAN t'a telefolo zkia

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparanlza, 2
20870 ELGOIBAR
.943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.co~rren
ARGRARATZAILEA
Elgotarko Izarra

LIGUNTLAILEA Elgoibarko Udala Koomourrzhnsh Ainhoa Andonegir ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETAR10. Irati Agirreazaldegi, PueuzrrArreA Amaia Erldzia MAKErATIALEA Iker Dego Aokensfehaox Amaia Podrrgez GEREMA Jon Peli Unguen KouumehrukkxxJasone Osoro, Ainhoa lodoso. Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansualegi, Edume Bilbao, Gotzon Arrieta. Lorea Perez de Albenlz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza,
Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.L. AZALEKO ESAERA ZAHAFIFIA Gotzon arateren tburtitik INPRIMATEGIA Gellli Koop. E. TIRADA 4.025 ale LECE COADAILUA 5E-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKOIZARAA

*Eigoibarko Udalak, Eusko Jaariaritzako Kultura Sailak eta Foru Aidundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
esker

1DANOBAT
YMOVINAS HERIMAIENTA

SSGOIT1
GRuPO 041,108Ar

ILITAIRTA

## GALDERA

• Emakurne batek **Mauxitxa Txarangan zergatik ez dagoen emakumerik** galdetu digu.

Txarangako kideei galdetu diegu, eta hauxe izan da beraien erantzuna: "Txarangako partaide berriak aukeratzerako orduan zein instrumenturen beharra dagoen aztertzen da lehenengo, ondoren pertsona bakoitzak daukan gaitasuna baloratzen da, eta azkenik txarangako giroan integratzeko egokiena zein den baloratzen dugu. **Orain arte ez da neskarik izan, baina instrumentu konkretuaren beharrik ez zegoelako, edo besteren bat egokiagoa iruditu zaigulako.** Dena den, neska zein mutil, txarangako partaide izan nahi duenak, asteartetan Plaza Txiki ondoko lokalera azaldu edo 656702959 telefonoan mezua utzi dezake"



• Guraso talde batek **Herri Eskolako 4.A mailako ikasleak eta bere andererioa** txalotu nahi ditu **Guggenheim museoan daukaten erakusketa ikusgarriagatik** eta kurtso guztian egindako lanagatik.

• Mendaroko ikastolako Arno Guraso Elkarteak **ekainak 15ean kirol eguna antolatu zuten erakunde guztiak** txalotu nahi ditu. Eroski, Netto, Kutxa, Gurelan, Joggers, Euskaltel, Sprilur, Pagoaga, Morroskilo eta Mendaroko Udala.

Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure teleforto zenbakia zehaztuz, barren@topagunea.com helbidera.



# QuEbrantahucsos Eth) "Lr Hiru Handia

# Piobarik rj,log©rrr⁻1.( Eigoi

*Pasa den asteburuan Idrol arloan inguruan dauden bi proba gogorrenetakoak jokatu ziren. Batetik, Quebrantahuesos Zidoturistentzako Nazioarteko Lasterketaren 11. edizioa Sablionigon (Huesca), eta bestetik, Hiru Handiak (Aitzgorri, Anboto, Gorbea) proba. Azken urte hauetan ohitura biurtu da hainbat elgoibartarrentzat proba hauetan parte hartzea eta aurten ere ez zuten hutsik egin. Egon zen parte hartzearekin konformatu ez zenik ere. Arkaitz Mujikak 3. postuan amaitu zuen Quebrantahuesos-a eta Kerman Morenok 37. postuan Hiru Handiak.*

## KERMAN MORENO: :

## "100 kilometroko ihilbidiak jende gehixao erakarri du Hiru Handiak egiteran



Espero al zenuen horren ondo ibiltzea? Denbora ona eitxia nakan buruan, baina uste baino hobeto aurkitxu nintzan. Neretzat Anboto igo eta jaistia da zatirik zailena eta hura pasa ostian, nahiko denbora onian sartuko nintzala ikusi naban eta martxia azkartu.

Hiru Handiak egin dituzun estreinako aldia al zen? Ez, aurtengua eitxen naban 3. aldixa zan. Lehenengo aldixan amaitzia zan nere asmua, baina oinguan nere markia bajatzia nahi naban. Lehenguan 18 ordu eta 45 minutu ein naban, baina 8 kilometro gutxio zian, ordubete baino gehixo ibiltzen.

Aurten 100 kilometro izan dira, ezta? Bai eta 100 kilometro izatiak jende gehixo erakarri dabala uste dot. Gainera, jende guztixa trabesia hau eitxeko prestatzen da. Behobia-Donostian antzerakua da alde horretatik.

Nola prestatu duzu zuk? Aste Santua ondoren trabesia mordo bat egoten dia 3 handixak prestatzeko. Hor hartzen da formia. Gehixenetara jun naiz. 60 kilometroko bi ein ditxut eta 30 eta 50 kilometro bitxarteko beste batzuk. Entrenatu gabe jutia ez da gomendagarrixa.

Zenbat partaide atera zineten? 826 lagunek eman zaben izena, baina 764 atera zian eta 432k bakarrik amaitxu zaben, tartian 19 emakumek.

Momentu kritikorik pastral zenuen? Aitzgorri igotzen azkarregi ibili nintzan. Horrenbeste jende irtetzen zanez, pilaketak ebitau nahi nitxun, baina gero esfortzua pagau naban. Jauzi eta rnomentu txar bat ere pasau naban, baina eguna argitxu zabanian oso ondo ibili nintzan.

Eguraldiak lagundu al zuen? Bai, nere gustuko eguraldixa ein zaban. Eguzkitsua, baina ez oso sargorixa eta ipar haize piskatekin.

Zer ordutan atera zineten? Gaueko 0:00etan Zalduondotik (Araba) atera eta Otxandion amaitxu gendun.

3 handiak igotzeko ordena beti herdina al da? Ez, batzutan alderantziz eitxen da. Duela 4 urte Gorbeatik hasi zan eta Aitzgorrin amaitxu.



Zenbat kilo galdu zenituen? 4 bat kilo, baina hurrengo egunian pisau nintzanez gehixo ere izango zian.

Euskal Herriko 3 mendirik altuenak ignz 100 kilometro proba ez al cla gehiegizkoa? Uste dot zure mugak non dauden jakiteko dala. Hau ere disfrutatzeko modu bat iruditzen jata, hau da, norberan buruantzat satisfakzio bat da limitiak ezagutzia eta gainditzia. Fisikoki ondo egon bida, baina buruak ere garrantzi handixa daka.

### Elgoibartarren sailkapena

Hiru handiak

| Izena | Denbora |
|---|---|
| 1-Kerman Moreno Iriondo | 18h 32min. |
| 2-Ibon Gabilondo Altuna | 19h 04min. |
| 3-111aki Izagirre San Martin | 20h 38min. |
| 4-Karlos Santamarta (Mendaro) | 21h 06 min. |
| 5-Luis Arosa Ansola | 22h 04min. |
| 6-Asier Arrieta Vallejo | 22h 04min. |
| Zigor Cornejo Larrafiaga | (erretiratua) |

# ba tai gorrInEOzat

## Arkaitz Mujika:
## "Lehenak txiki-txiki einda guazen, baina atzetik zatozenak okerrao"

Espero al zenuen Quebrantahuesos Iasterketa 3. postuan amaitzea? Ez. Iaz ondo prestauta jun nintzan eta 20. ein naban. Aurten ondo ibiltzia espero naban, baina ez 3. eitxia. Guztira 4.600 lagunek hartu gendun parte. Sasoiko nauan eta oso gustura ibili nintzan. Hala ere, suertia bihar da pintxazorik edo erorketarik ez eukitzeko.

Beti anrrean ibili al zinen? Bai, bigarren portutik aurrera sei laguneko talde bat sortu gendun eta batera ailegau ginan helmugara. Italiano batek irabazi zaban sprint-a. Bigarren ein zabanak azkenengo metruan pasau zian. Hurrengo taldia 17 minutura ailegau zan.

Aurten ibilbidea luzeagoa izan da, ezta? Bai, mugimendu sismiko batzuk zirela-eta, ibilbidia aldatu biharra euki zaben. Lehen 6 ordutatik bajatzen zian Iehenenguak, baina aurten 7 ordu ein ditxu lehenak. Guztira 230 kilometro zian, nahiz eta neri 238 kilometro irten jatazen kilometro-kontagailuan. Batazbesteko abiadura 34 kilometro ordukoa izan zan.




Proha gogorra izan al zen? Bai oso gogorra. Bero izugarrixa ein zaban, sargorixa eta haizia kontra gainera. Ura edan eta edan pasau gendun eta hankak egositxa ailegau ginan. Lehenak guazenak txiki-txiki einda guazen, baina atzetik zatozenak okerrao. Gabeko 22:00etan etxerantz natorrenian oindiokan bizikletan zabilen jendia. Ura bukatu zala eta jendia oso gaizki ibili zala esan die; errepide bazterrian botaka, sueruakin asko, lur jota gehixenak.

Une kritikorik pasa al zenuen? Azken 40-50 kilometruak, baina fisikoki baino gehixo psikologikoki. Inoiz ez ginala heldu bihar ematen zaban. Eskerrak gurasuen laguntza euki naban kotxetik bihar nabana emateko, bai ura eta baitxa animuak ere.

Zenbat denhora egin duzu Quebrantahuesos proha prestatzen? Urte guztixa. Abendutik hona 11.500 kilometro ein ditxut. Goizez entrenau eta arratsaldian lanera. Espainiako eta atzerriko onenak juten dia eta auiTian ibiltzeko hola ibili bihar da. Azken 3 astiak oporrak hartu nitxun ondo preparatzeko. Nibel handixa dao eta

Ouebra N o

**Eigalbartarren sailkapena**

| Izena | Denbora | Postua |
|---|---|---|
| Arkaitz Mujika | 7:01 | 3 |
| Aitor Goenaga | 7:25 | 42 |
| Iñaki Arregi | 7:40 | 113 |
| Ignacio Diaz | 8:01 | 217 |
| lgor Dieguez | 8:02 | 227 |
| Javier San Andres | 8:27 | 441 |
| Fco. Jose Ecenarro | 8:30 | 476 |
| Jorge Gonzalez | 9:16 | 1077 |
| Javier Torquemada | 9:25 | 1208 |
| Gorosabel | 9:28 | 1248 |
| lgor Rey | 9:56 | 1652 |
| Ricardo Fluidobro | 10:08 | 1830 |
| Jose Juan Barrenetxea | 10:15 | 1926 |
| Azibar Iraolagoitia | 10:15 | 1946 |
| Jon Ortuoste | 10:32 | 2038 |
| Pablo Barrenetxea | 10:36 | 2238 |
| Juan Karlos Urbizu | 10:43 | 2343 |
| Javier Rubia | 10:43 | 2344 |
| Miguel Angel Urkiza | 10:43 | 2345 |
| Gorka Soraluze | 10:43 | 2346 |
| Ricardo Aranzabal | 11:11 | 2643 |
| Jose Ramon Cabello | 11:17 | 2700 |
| Eduardo Arrona | 11:18 | 2728 |
| Josu Mendikute | 11:52 | 3091 |
| Luisen Garcia | 12:31 | 3427 |
| Juan Fernandez | 13:13 | 3686 |

Badakigu erretiratuak ere izan zirela baina ez dugu zerrendarik jaso

## Ikastaro berriak eskainiko ditu Musika Eskolak

Inazio Bereziartua Musika Eskolak amaitzear du 2001-2002 ikasturtea, eta jadanik hasi dira datorren kurtsorako ikastaroak antolatzen. "Musika maestro" da ikasgai berri horietako bat eta batez ere helduei zuzendutakoa izango da, hau da, jubilatuei, etxekoandre zein gizonei... Ikasgaiaren helburua arteaz gozatzen ikastea da, eta musikaz gain• literatura, zinea, antzerkia eta arte plastikoak ere landuko dituzte. Helduek ongi pasatu ahal izango dute musika entzuten, erakusketetan, txapelketa kulturaletan... Hurrengo urteetarako ere ari dira ikasgai berriak prestatzen, hala nola: informatika bidezko musika eta musika konposatu zein idazteko ikasgaiak. Honela, helduek musikaz gozatu ahal izango dute.

## Kolektorea jartzeko lanak hasi dituzte Deba ibaian

### Paseoa eraikiko dute Goiko Errota eta Lerun artean

Makinak Deba ibaian lanean ari dira, ur zikinak bilduko dituen hodia jartzeko lurra egokitzen. Hodiak Apraizen eraikiko duten depuradorara eramango ditu urak. Hirigunetik zein industrietatik datozen ur zikinak leku askotan bilduko dituzte, eta horretarako lanak hainbat fase izango ditu. Lehendabizi Eibar, Soraluze, Mallabia eta Ermuako urak bildu eta Maltzagatik Elgoibarrera bideratuko dituzte. Bigarren zatia Elgoibarko erdigunetik Apraizera doana izango da. Bide guztian ibaiaren eskuinetik joango da, baina Melitonen ibaia gurutzatuko du.

Tanelak

Hodiak bere ibilbidean bi tunel txiki pasatu beharko ditu. Mendia pasatuz Etxe-Tar eta Kondia enpresen parera joateko bat eta Usatorre etxearen parean bestea.

Paseoa

Kolektorea egindakoan hau estali eta paseoa egingo dute ibai bazterrean. Arrantzaleen paseoa izendatu dute eta ibai aldameneko etxeen ondotik, Goiko Errota eta Lerun arteko bidea zeharkatuko du. Hiru metro zabal izango ditu eta ibaitik lau metroko altuera izango dti lekurik garaienean eta metro eta erdi bajuenean. Paseorako, beraz, leku berri bat izango dugu Elgoibarren.



*Eskabadorak ibai bazterretako lurrak mugitzen ari dira .*

## Batasuna alderdiko zinegotziek plenoa utzi zuten alderdi politikoen legearen kontra protestatzeko

### Batasunaren ilegalizazioari buruzko mozioa onartu zuten EAJk eta EAk




*Batasunako zinegotztek ez zuten parte hartu plenoan.*

Joan den asteartean Alderdien Legea onartu zen Espainiako Senatuan. Egun horretan bertan plenoa izan zen udaletxean eta lege honen aurkako mozioek eman zuten zeresanik. Plenoa hasi aurretik Batasuna alderdiko ordezkariek plantoa egin zuten, ilegalizazioaren kanpainaren aurka protestatzeko eta aste honetan Batzordeetan ere ez dutela parte hartuko esan zuten. Beraien mozioa irakurtzen saiatu ziren baina alkateak hitza kendu zion Batasunako ordezkariari. Ondoren, pleno aretotik atera ziren Batasunako kideak. Batasunaren mozioa ez zuten onartu EAJ-PNV, PP eta PSE-EE alderdiek aurka bozkatu baitzuten eta EA abstenitu egin zen.

Bestalde, Eudelek demokraziaren, askatasunaren eta aniztasunaren alde aurkeztutako idatzia onartu zuten plenoan zeuden alderdi guztien baiezkoarekin. Amaieran EAJ-PNV eta EA alderdiek Batasunaren ilegalizazioari buruz aurkeztutako mozioa bozkatu zuten eta PP eta PSE-EEk aurkako botoa eman arren onartua izan zen.




## Sisfieko langileek kontzentrazioa egin zuten 3 lagunen kaleratzea salatzeko

Sisfle enpresako langileek ordubeteko kontzentrazioa egin zuten enpresaren aurrean 3 langileren kaleratzea salatzeko eta beraiei elkartasuna adierazteko. Enpresa buruekin akordio batera iritsi badira ere, aurrerantzean berriz horrelako kaleratzerik gerta ez dadin egin zuten geldialdia. Enpresatik adierazi digutenez, hiru langile hattek ebentualak ziren eta enpresan lana gutxitu zenean kon tratua bukatua zutenez kaleratzea erabaki zuten. Hala ere, langile hauei zegokien indemnizazioa ordaindu diete.

## Ana Garate izan da balkoi apainketako lehiaketaren irabazlea Elgoibarren



Guitira 500 lagunek hartu dute parte balkoiak lorez apaintzeko bailarako lehiaketan. Mutrikuko Jon Alzibar izan da Debabarreneko irabazlea eta sari honetaz gain, herri bakoitzeko balkoirik politenari ere eman diote saria.

Elgoibarren Antonio Arrillaga kalean bizi den Ana Garatek bere balkoiko lore eta landareak ongi zaintzen dituela erakutsi du. Izan ere, berak jaso du herriko onenaren saria. Anak lorezaintzako materialetan gastatzeko 100 euro jasoko ditu.



## Euriak ez zituen Altzolako San Juan jaietako ekitaldiak busti

Aurtengo San Juan jaietan suak urari egin dio aurre. Euria lagun izan arren Altzolako jaiak giro politean pasatu zituzten auzotarrek. Deba ibaian piztutako sua eta San Juan zuhaitza protagonista zirela, musika doinuak eta dantzarako aukera ez ziren faltan izan Altzolan. San Juan egunerako umeentzat antolatuta zeuden jolasak bertan behera geratu ziren euria zela-eta. Hala ere, herri kirolek izan zuten lekua. Aimar eta Arkaitz harrijasotzaileek eta Ugaitz eta Aratz aizkolari gazteek erakustaldia egin zuten. Asteartean, jaiak amaitzeko Gonitik bere animaliekin ikuskizuna eskaini zuen Altzolan.






### Siesta mesedegarria izateko, 30 minututik beherakoa izan behar dela diote medikuek

# BA AL DAUKAZU SIESTA EGITEKO 111111TURARIK?



### PABLO MARTIN

**52 urte, agente komertziala**

Ez daukat siesta egiteko ohiturarik, izan ere ez daukat denborarik. Bazkal ostean etxean egonez gero, sarritan lo gelditzen naiz. Asteburuetan siesta luzea botatzen dut batzuetan, eta ez dit onik egiten.

### MIGUEL RUBIO

**63 urte, jubilatua**

Hemen ez dut siestarik egiten, baina Andaluziara joaten naizenean bi orduko siesta egiten dut egunero. Bero handia egoten da, eta ezin da inora joan. Hemen eguraldiak kalera ateratzeko gogo gehiago ematen du.





### LUCIA SETIEN

**30 urte, erizaina**

Ez dut siesta botatzeko gogorik edukitzen, ez daukat siesta beharrik. Egin izan dudanetan ez dit kalterik egin, baina ez daukat ohiturarik.

### JOSEBA ALONSO

**45 urte, torneroa**

Lehen egiten nuen siesta, baina orain ez daukat denborarik. Lo gutxi egiten dut, eta siesta botatzea gustatuko litzaidake. Asteburuetan telebista aurrean lo gelditzen naiz askotan.





### PILI MARTINEZ

**49 urte, affininistraria**

Lana dela eta, ez daukat siesta botatzeko denborarik. Asteburuetan lo apur bat egiten dut batzuetan, baina ez ohitura bezala. Gainera, bazkal ostean digestioa egiteko nahiago dut pasiatzera ateratzea siesta botatzea baino.

### CAROLINA IGLESIAS

**30 urte, ingeniari teknikoa**

Ez daukat siesta egiteko denborarik, baina ahal banu egingo nuke. Asteburuetan denok batera egiten dugu siesta etxean, eta luzeak izaten dira normalean. 30 minututik beherakoak ez ditugu egiten.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %i OEKO BEHERAPENA
94bitddeijap ~a~teolaioal6 otteldio,

ARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

# Dek9raZ·o

eb

gehigarri berezia

/ ge

i



onw,,

"Etxe beteak atseg hutsak bihotz min" dio esaera zaharrak.
Etxea apaintzea eta altzariz janztea gizakiaren bizilekua betetzea da.
Etxea intimimitatearen, pribatutasunaren eta bakardadearen txoko izan daiteke. Baina, era berean, familia edo lagun arteko lekua ere bada. Atsedenerako izan daitekeen bezalaxe nork ez du festarako erabiltzen? Funtzio askotarako den neurrian etxea bertan eroso egoteko moduan jarri behar da. Hori da gure asmoa etxe berria apaintzen ari zaretenoi edo zaharra berritu nahi duzuen guztioi lana erraztea.
Ez pentsa guk zuen etxeetako altzariak ipiniko ditugunik, ezta gutxiagorik ere. Baina hainbat helbide interesgarri emateaz gain, etxea dekoratzeko orduan kontutan hartu beharreko zenbait truko jakinaraziko dizkizuegu. Gure aholkuak jaso ostean norberak erabakiko du bere etxean zer egin. Izan ere, esaerak hala dio:
Nork bere gustura egiten du etxea.



# Sukaldeak, ondo antolatuak hobeak

Garai batean sukaldean elkartzen ziren familiak. Modernitateak, ordea, sukaldea eta jangela banatu egin ditu. Baina, gero eta denbora gehiago pasatzen da sukaldean, beraz, ahalik eta modurik erosoenean antolatu behar da.

**Guneak**

o Jatekoa prestatzeko gunea: Lurrun gutxi sortuko da eta gutxiago zikinduko du babestutako lekuan jarriz gero. Sukaldea gasezkoa bada ez da komeni leiho azpian jartzea.
o Garbiketarako lekua: Leiho azpian.
o Ontziak gordetzeko tokia: Sukaldearen azpian.
o Biltegia: Goitik beherako zutabea.

**Mahaiak:**

o Sukalde txikia: Mahai tolesgarriak. Lanerako edo jatordu azkarretarako.
o Sukalde handia: Mahai Finkoa. Txokorako mahaiak bankuekin.
o Sukalde oso handiak: Mahai handia. Familiako jatorduetarako.



**Egitura**

o L eran: Sukalde txikietarako. Harraska izkinan.
o U eran: Harraska, hozkailua eta janaria presta-tzeko gunea elkarrengandik gertu.
o Paraleloan: Sukaldeak bi zatitan banatzen duen sarrera duenean.
o Beste: Sukaldea handia bada erdian hainbat modulo jar daitezke.

Movel

*sukalde eta bainurako altzariak*

**KALITATEZKO ALTZARIAK** KLASIKOAK
MODERNOAK
ERRUSTIKOAK





***Neurrira egingo dizugu zure ametsetako etxearen proiektua***

P.M. Urruzuno, 10 • Tel. 943 743 766 • 20870 ELGOIBAR

ETXEKIT

Luis F. Beristain

sukaide eta komunerako altzarlak

arotz lanak

proiektuak eta erreformak









'2111111

Arrilaga kalea z/g (postetxe parean) tel.:943 74 43 47

## **Komunak,** altzariz apain ditzakegunak

Komuneko ontziek mugatzen dituzte bertako altzariak. Hauetaz gain, ispilua eta toaila euskarriak ezinbestekoak dira komunean. Gainontzeko altzariak norberak erabakiko du espazioaren eta estiloaren arabera jarri edo ez.

**Obrako altzariak**

Paretetako baldosekin estalitako apalak edo komunerako erabilitako materal beraz egindako armairuak.

Abantaila: Komunarekin bat datoz.

Desabantaila: Aldaketak egiteko aukera gutxi dago.



**Materiala**

Egurra nagusi izan da orain artean, baina aluminioa edo beste material berriak lekua hartzen hasi dira komunetan. Bainugelako altzari guztiak material berekoak izango dira edo materialen konbinaketa egokia egingo da.

**Konketa**

Bainugela batean honen azpian aurkituko dugu gehienetan altzariren bat. Gauza hauek hartuko dira kontutan:

Konketaren materiala: Loza, beira edo altzairua.

I Konketa estalki baten barruan dagoen edo ez.

Konketa bera luzatu eta estalki funtzioa bete dezake.

Estalkiaren barnean koka daiteke.

- *Klasikoa:* Marmola
- *Modernoa:* egurra, beira edo baldosa


# INPERMEABILIZAMO LANAK





## Soluzioa, siku-sikuan

**Hezetasun arazoak terrazetan, estalkietan, sotoetan, garajeetan, hormetan, etab.**
**Transitableak, elastikoak, transparenteak, dekoratiboak.**

**Informazio gehiago:**

g a control
Isolamenduak

Olaso 27, 47. pabilioia
Te1,943 743 094- Te1.943 744 354

i i 1 1 1 11

# GOKI ERREFORMAK

1 C)biTdiz eta pi]lo Gapek

Cw4010141

## Zatoz Olason dugun erakust



## Bainurako denetik







## Altzariak estilo guztietan

## Hidromasajean adituak





## Bainurako osagarrietan aukera zabala



## Ateekin ere lan egitenydub


**Olaso Poligonoa, 15 - 68 pabiliola**
**Tel.:** 943 74 28 80 943 74 42 23 - 943 74 46 40
**Faxa:** 943 74 45 87
20870 ELGOIBAR



**ASKETA 1GELTSERITZA**
Osio, 7 Deba
v 629 344 389

**ARAMAR ELEKTRIZITATEA**
Morkaiko, 1
.2s 943 741 280

**LODOSO AROZTEGIA**
Ermuaranbide, 16
v 943 743 490

**GLAS CONTROL**
**ISOLAMENDUAK**
Olaso 27, 47. pabilioio

**BALA AROZTEGIA**
Deba kaleo. 16
v 943 740 396

**IPI NTZA PINTURAK**
Foruen enparantza, 4
v 943 740 440
v. 607 740 440

**TELLABIDE ITURG1NTZA**
Azpilgoeta, 19 Mendaro
✓943 755 062
✓607 755 062

**ANGEL 1TUR fNTZA**
Santa Ana, 5
v 943 741 761
v 689 049 206

**GABILONDO PROIEKTUAK**
Ubitarte, 4-5 esk.
iv 943 744 599

**JOSE PINTURAK**
San Bartolome, 28-1 ezk
v 943 741 255
v 629 442 314

**ZALDUA ITURGINTZA**
Urasandi, 26
943 740 530

**URZELAI ELEKTRIZITATEA**
Santa Ana, 12-14
r 943 741 376



**LURRA**
Santa Kara, 28 behea
v 943 744 050

**ONGI ITURGINTZA**
Olaso poligonoa, 15 -
68 pabiloia
Ir 943 742 880

**MENDEZ 1GELTSERITZA**
Urasandi, 2d
v 943 742 987
v 679 197 747

**SORALUZE AROZTEGIA**
Santa Ana, 8
O 943 743 634

**ZUBIZARRETA ITURGINTZA**
Ubitarte, 5
v 943 740 789
v 608 143 040

**PROFESIONALEN ESKU • UTZI ZURE ETXEA PROFESIONALEN ESKU • UTZI ZURE ETXEA PROFESIONAL**



**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
943 741 552
606 431 119-20

**GARCIA AROZTEGIA**
P. Muguruza, 30
943 743 238

**P.P. BERISTAIN**
San Roke 30, behea
943 743 652

**BIENA AROZTEGIA**
Ermuaranbide, 16
943 743 116

**PAGOAGA ITURGINTZA**
San Antolin, 13
943 740 279

**BETI ARGI ELEKTRIZITATEA**
Errosario, 6
943 741 644

**CORDON VILLARCHAO**
San Roke, 7
943 742 874

**ULAZIA AROZTEGIA**
Santa Klara, 10
943 740 547



**JOSEBA ELEKTRIZITATEA**
Pedro Muguruza,29
943 740 902
659 934 964



**A. MARKEZ IGELTSERITZA**
Urasandi, 24
943 743 418

# Argiztapena, egongelarako egokiena

Eroso egoteko tokia da egongela. Erosoa eta argia. Argitasunak garrantzia handia du etxeka txoko guztietan. Baina etxe guztiari buruzko argibideak ematea ezinezkoa zaigunez salakoargiak jartzerakoan kontutan hartu behar diren oinarrizko gauzetaz arituko gara.

Y Argi apala: Atsedenerako bide ematen duena. Argiztapen orokorra homogeneoa. Sabaiko lanparak edo intentsitate baxuko foko halogenoak jarri.

Y Entxufeak izkina guztietan eta sofaren aldamenean. Lanpara bakoitzak berea.



Argia liburutegian: Sabaian sartutako fokoak edo kono formako estalkiak dituzten aplike txikiak.

irakurketarako erregulatzeko lanpara: Irakurketako txokoa bertara zuzendutako argi potentez argiztatuko da, baina beti ere erregulatzeko aukeraz.

Argi orokorra telebistarentzat: Telebista islarik gabe ikusteko argi apala behar da. Horretarako telebistaren atzean edo alboetan argi apaldun lanparak jarriko dira.

VInterruptoreen ordez intentsitate erregulatzaileak jarri. Nahi dugun argiaren arabera potentzia gehitu edo gutxitzeko.





ate-ona
JUII1 aizt.:nea, 1-A
20720 Azkoitia IGIpuzkoa)
Tfnoa. 943 85 17 55
Fax: 943 B5 28 02
KALITATEAK, DISEINUAK ETA PROFESIONALTASUNAK GURE IZENA DEFINITZEN DUTE
